



ZUZENBIDE ZIBILA

ZUZENBIDE ZIBILAREN EREMUA

Itziar ALKORTA IDIAKEZ
Mikel Mari KARRERA EGIALDE

AURKIBIDEA: I. Zuzenbide Zibila: bilakaera.-1. Kontzeptu historikoa.-2. Espainiako Kode Zibila.-**II. Espainiako ordenamendu zibila: ordenamendu zibil anitz.**-1. Konstituzioaren eragina (1978).-2. Zuzenbide zibil autonomikoak.-**III. Zuzenbide zibilaren edukia.**-1. Zuzenbide pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketa.-2. Zuzenbide zibila, zuzenbide pribatu orokor.-3. Egungo ezaugarriak.-4. Zuzenbide Zibila osatzen duten erakunde nagusiak.

I. Zuzenbide Zibila: bilakaera

Espainiako eta Euskal Herriko zuzenbide zibilari buruzko azalpenekin hasi aurretik, zuzenbide zibila, oro har, zer den adierazi behar da. Zaila da, ordea, zuzenbide zibilaren definizio zehatz eta orohartzailea ematea; horren ordez, kontzeptua argitze aldera egokiagoa da hurbilketa historikoa egitea.

Ikasgai honetan, Zuzenbide Zibilaren historiari erreferentzia laburra egin ondoren, irakasgaiaren ezaugarri nagusiak azalduko dira, hala nola zertan bereizten diren zuzenbide pribatua eta zuzenbide publikoa, zuzenbide zibilak zuzenbide pribatu orokor gisa duen eginkizuna, zein diren zuzenbide zibilaren gai edo erakunde nagusiak eta zer-nolako eragina izan duen 1978ko Konstituzioak erakunde haiengan.

1. Kontzeptu historikoa

Zuzenbide zibil terminoaren esanahia aldatuz joan da historian zehar. Jatorrian, arau multzo horren sorburua zuzenbide erromatarreko *ius civile* delakoa izan zen. *Ius civile*-ak zuzenbide pribatua eta publikoa, biak, hartzen zituen bere barruan. Erromatarrentzat herri bakoitzak berezko duen Zuzenbidea da *ius civile*. Izan ere, Erromak bere herritarrei baizik ez zien aplikatzen zuzenbide erromatarra; kanpotarrak aldiz, *ius gentium* bitartez gobernatzen ziren. Bestalde, *ius civile* tradizioan oinarritzen zen, eta forma aldetik oso zurruna zen; hori dela eta, Zuzenbide tradizional horren ondoan beste arau batzuk sortu ziren Pretorearen interpretazioetatik abiatuz, malguagoak eta trafikiko juridikoari egokituagoak. Arau horiek denborarekin multzo autonomoa sortu zuten, *ius honorarium* delakoa. Edonola ere, K.o. VI. mendean Justiniano enperadoreak Erromako Zuzenbidearen bilduma agintzen duenerako bi arau-masa horiek (*ius civile* eta *ius honorarium*) elkarrekin nahastuta agertzen dira.

Jakina denez, aipatutako konpilazio-lan erraldoi horri *Corpus Iuris Civilis* izena eman zitzaion. Bertan bildu zuen jurista hautatuen batzorde batek erromatarren zuzenbide guztia: arau pribatuak zein publikoak. Hala ere, *Corpusean* jasotako bi arau mota horien artean biziraupenik luzeena zuzenbide pribatuari zegozkion arauak izan zuten. Erdi Aroan, Justinianok bildutako zuzenbide erromatarra ediren zen garaian, gizartearen antolamendu



politikoa eta administrazioa antzinatekoen oso desberdinak ziren, eta, horregatik, *Corpus* aurkitu eta erabili nahi izan zutenek zuzenbide pribatuko arauak besterik ezin izan zuten kopiatu eta erabili. Garai horretan, beraz, *Corpus Iuris Civilis*-aren zati bateko harreraren ondorioz, zuzenbide pribatuarekin berdindu zen *ius civile* delakoa.

Aipatutako zuzenbide erromatarraren harrerarekin batera, zuzenbide kanonikoak eragin handia izan zuen Erdi Aroko arautegietan, nahiz eta eragin hura zuzenbide pribatuan baino gehiago prozedurazko arautetan nabaritu zen. Dakigunez, *Corpus Iuris Canonici* eta *Corpus Iuris Civilis* delakoen harrera Italian hasi zen, Frantziara zabaldu zen ondoren eta handik Alemania, Espainia, Polonia eta beste herrialde batzuetara hedatu zen; Ingalaterra, Eskandinavia eta Herri Eslaviarrak, berriz, eragin horretatik kanpo geratu ziren. Edonola ere, Espainian, ez zen leku guztietan berdindu zuzenbide erromatarra. Zuzenbide erkidearen eragina tokian tokikoa izan zen: Katalunian eta Mallorcan oso sakonekoa; Gaztela eta Valentzian, garrantzitsua izangatik ere, azalekoagoa izan zen; Aragoi eta Euskal Herrian aldiz, oso txikia. Harreraren bitartekoei dagokienez, eta beste herrialde batzuetan gertatu legez, sortu berriak ziren Unibertsitateen bitartez sartu zen zuzenbide erromatarra Espainian: Palentzia, Salamanca, Sevilla, Valladolid eta Alcalako zentroak izan ziren zeregin horretan esanguratsuenak.


Zuzenbide erromatarraren harrera-prozesuak Europako herrien zuzenbideari batasun moldea ematen dio pixkana: metodoari buruzko alderdietan lehenik, eta arautetan geroago (zuzenbide publikoari dagozkion arauak izan ezik, lehen esandako arrazoengatik).

Aro Modernoan (XVI. mendetik aurrera), estatuak indartzearekin bat, bateratze-prozesuaren alderantzizko joera sortzen da, estatu bakoitzean Zuzenbide Erkidea berezitzeraz eramango duena. Bestalde, Erreforma protestanteak Europaren batasun espiritualak haustearrekin bat, Zuzenbide Kanonikoaren gainbehera hasi zen. Testuinguru berri horretan lurralde bakoitzaren zuzenbide propioak sendotu egin ziren, Zuzenbide Erkidearen kaltetan. Zuzenbide Erkideak, ordea, beste maila batean bazen ere, kulturazko adierazpen gisara, iraun egin zuen.

Estatuek beren egitura eta boterea bermatu ahala (XVII. mendearen bigarren erditik XVIII. mendearen amaiera arte) antolamendu juridiko propioek betetzen dute apurka Zuzenbide Erkidearen lekua. Estatuaren indartze-prozesuak, berriz, Zuzenbide Zibilaren edukietan eragiten du; izan ere, Estatuak beretzat gorde nahi lituzkeen botere-guneak indartzeko, prozedurazko, administraziozko eta zigor mailako arauak aldarrikatzen ditu, Zuzenbide pribatuaren eremua nabarmen mugatuz. Joera hori areagotu egingo du XVIII. mendean Kodeketa-prozesuak.

Orain arteko guztia labur esanda: Zuzenbide Zibilaria gaur egun duen itxura emango diona Zuzenbide Erkidearekiko eta Zuzenbide Publikoarekiko bereizketa-prozesua bera izango da.


Kronologia	Zuzenbide Zibila eratzea
753 K.a. Erroma sortzea	Erromatarra: <i>Ius Civile</i> + <i>Ius Honorarium</i>
395 K.o. Inperioa zatitzea	Orokorra: <i>Ius Gentium</i>
527-565 K.o. Justiniano agintari	528-535 K.o. <i>Konpilazioa</i> <i>ius civile</i> + <i>ius honorarium</i> + <i>ius gentium</i>



<http://www.uam.es/departamentos/filoyletras/hmedieval/especifica/cuadernos/mapas/0565.gif>

Kronologia	Zuzenbide Zibila eratzea
962 K.o. Oton I-ak Koroa hartzea (Erromatar-Germaniar Inperio Saindua sortzea)	<i>Ius Commune</i>
1075 K.o. Inperioaren eta Aitasantutzaren artean gatazkak	(1) <i>Digesto - Pandectas</i> (arau pribatuak: <i>Corpus Iuris Civilis</i>) (2) <i>Corpus Iuris Canonici</i>
Behe Erdi Aroa Merkataritza indartzen da	Merkataritzako zuzenbidea sortzen da
Gaur Egungo Aroa 1789 Frantziako Iraultza 1800-1815 Napoleonen Gobernu 1830 Iraultza moderatuak 1848 Iraultza erradikalak	Nazionalizatzea / Pribatizatzea 1804 Frantziako <i>Code Civil</i> 1860-1880 Lan Zuzenbidea sortzen da 1889 Espainiako Kode Zibila 1900 Alemaniako Kode Zibila (BGB)





Erreinu desberdinak dinastia berdinean batzea

<i>Aragón</i>	<i>Castilla</i>	<i>Cataluña</i>	<i>Mallorca</i>	<i>Navarra</i>	<i>Valencia</i>	<i>Vizcaya</i>
<i>Fueros de Jaca, Daroca y Teruel</i>	<i>Fueros Juzgo y Real</i>	<i>Usatges o usos</i>	1663 <i>Recopilación Privada de Antonio Moll</i>	<i>Fueros de Estella, Tudela y Val de Funes</i>	1240 <i>Costum o Furs (Derecho de la capital)</i>	1452 <i>Fuero viejo</i>
1247 <i>Compilación de Huesca</i>	1348 <i>Ordenamiento de Alcalá</i>	1495 <i>Compilación</i>		1330 <i>Fuero General</i>	1261 <i>Costum o Furs (Derecho general del Reino)</i>	1526 <i>Fuero nuevo</i>
1437 <i>Observancias</i>	1505 <i>Leyes de Toro</i>	1588 <i>Compilación</i>		1716 <i>Novísima Recopilación</i>		
1552 <i>Recopilaciones (Cuerpo de Fueros, Observancias y Actos de Corte)</i>	1567 <i>Nueva Recopilación</i>	1704 <i>Constitucions y altres Drets de Catalunya</i>				
	1805 <i>Novísima Recopilación</i>					



Arazo forala ikuspegi historikotik	
XIII - XVII. mendeak	Bateratzea gauatzeko oinarriak 1469-1707: Espainiaren bat egite dinastikoa
XVIII. mendea	Batuketa praktikan jartzea: Foru Zuzenbideak proiektu politikoaren biktima bihurtzen dira 1700-1714: Oinordetza Gerra = Aragoiko Koroarentzat <i>Decretos de Nueva Planta</i> ematen dira: (1) Legeak egiteko almena galtzea (2) Zuzenbide pribatuak irauten du edo berrezartzen da: Aragoi (1711), Mallorca (1715) y Katalunia (1716) (3) Valentzia zuzenbide pribaturik gabe geratzen da



Lehen Karlistada: Carlos M ^a Isidro (V) (1833-1840) Ley de 25 de octubre de 1839			
Navarra Ley de 16 Ley de agosto de 1841		Provincias Vascongadas Decreto de 29 de octubre de 1841	
Ahalmen legegilea eta judiziala galtzen dira	Berezitasunak alor zibilean, administrazioan eta tributuetan	Ahalmen legegilea eta judiziala galtzen dira	Berezitasunak alor zibilean, administrazioan eta tributuetan





Hirugarren Karlistada: Carlos M ^a de los Dolores (VII) (1872-1876)	
Ley de 21 de julio de 1876 (Provincias Vascongadas)	Bertako zuzenbidea derogatzen da

XIX. mendea	Constitución 1808 (Baiona): <i>las Españas y las Indias se gobernarán por un solo Código de leyes civiles y criminales</i> (art. 96)
Konstituzioa eta Kodea <i>versus</i>	Constitución 1812: <i>El Código civil y criminal y el de comercio serán unos mismos para toda la Monarquía, sin perjuicio de las variaciones que por particulares circunstancias podrán hacer las Cortes</i> (art. 258)
Foru Zuzenbideak	Constitución 1837: <i>Unos mismos Códigos regirán en toda la Monarquía, y en ellos no se establecerá más que un solo fuero para todos los españoles en los juicios comunes, civiles y criminales</i> (art. 4)
	Constitución 1869 (art. 91), 1876 (art. 75): <i>Unos mismos Códigos regirán en toda la Monarquía, sin perjuicio de las variaciones que por particulares circunstancias determinen las leyes. En ellos no se establecerá más que un solo fuero para todos los españoles en los juicios comunes, civiles y criminales</i> (art. 91)

2. Espainiako Kode Zibila

Exposición de Motivos del Real Decreto de 6 de octubre de 1888: Pocos serán ya hoy en España los que desconozcan la conveniencia de sustituir la legislación civil vigente, desparramada en multitud de cuerpos legales desde la época gótica, en la edad media y en tiempos más recientes, pero siempre distantes de nosotros (...) por un monumento legislativo armónico, sencillo y claro en su método y redacción, que (...) satisfaga las complejas necesidades de la moderna civilización española.

SISTEMAK	
Bilketa <i>versus</i> Kodeketa	
Bilduma	Kodea
Arauak biltzea	Arau argien sistema
Izenaren arabera ordenatua	Antolatua: koordinazioa/subordinazioa
Jatorri desberdina: egileen / garaien arabera	Helburuz, osoa eta irauteko egina
	Helburua: KZ 1.7 art.



Kodeketaren aldeko apostua: Kode Zibilak		
Lehenak	1756 Babiera	1794 Prusia
1804 Frantzia <i>Zuzenbide Naturalaren Eskola</i>	1804 Belgika	
	1838 Holanda	
	1858 Txile <i>Espaniar Proiektua 1851</i>	1861 Ekuador
		1869 Argentina
		1873 Kolonbia
	1865 Italia	
	1867 Portugal	
	1889 España <i>Proiektua 1851</i>	Kuba (1987 arte)
Puerto Rico (1930 arte)		
Filipinak (1949 arte)		
1900 Alemania (B.G.B.) <i>Zuzenbide Historikoaren Eskola</i>	1907 Suitza (Z.G.B.)	
	1942 Italia	
	1966 Portugal	
Modernoak	1989 Paraguay / 1992 Holanda / 2000 Mexiko	

Espaniako Kode Zibila berandu egin zen Europako gainerako Kodeekin alderatuz gero. 1812ko Konstituzioan egitasmo ziren beste Kode batzuekin batera idazten hasi baziren ere, Kode Zibila izan zen aldarrikatzen azkena. Horretarako arrazoiak askotarikoak dira: ezkontzaren auzian, liberalen eta Elizaren arteko desadostasuna zen oztopo batetik; eta, bestetik, arau zibilak bateratzearen aldeko mugimendua eta Foru Zuzenbidearen pluraltasunaren defentsa kontrajartzen ziren.

CLAVEROK dioenez, Kodea agertzea arazo forala zela eta atzeratu zen. Oinarrian arazoa hau zen: Estatu konstituzionalak ezin zuela onartu foru-eskubideak egotea, foru-eskubideen zilegitasuna ohitura eta korporazio, eliza eta jaunen baitako parlamentu historikoen legegintzarako gaitasunetik baitzeturten. Konstituzio-sistemak “foru-lege” hauek ezin zituen benetako legetzat hartu. Konstituzio Estatuaren printzipioaren arabera, Gorteeek onar edo atzera bota zitzaizkien ziren benetako legeak. Ideia honekin bat, 1812, 1845, 1869 eta 1876ko Konstituzioek Monarkia guztirako Kode bakar bat izateko beharra aldarrikatzen zuten.

Hirurteko (1820-1823) liberalaz geroztik ideia hau hasi zen zabaltzen: Kodeak ez duela izan behar indarrean zeuden lege-bildumen berritze hutsa; ordena berria sortu behar zen, iraultza eta zientzia juridikoaren printzipioei atxikia. Celso erromatar juristak *ius est ars boni et aequi* (“onaren eta justuaren arte”) gisa definitzen duen hori lortu behar zen. Gainera, Zuzenbidea bateratu eta “berezikeria juridikoak” (foru-zuzenbideak, alegia) alde batera uzteko balio izan behar zuen Kodeak.

Kode Zibilaren lehen proiektua 1836an aurkeztu zen. Lehen zirriborroak 2.458 artikulua zituen, eta ez zuen inolako eztabaidarik piztu Gortean. Urte batzuk geroago, 1843an, legegintza berritzea beharrezkoa dela aldarrikatzen dute moderatuek, tradizioaren errespetuan oinarrituta, baina ideal liberaleri uko egin gabe; izan ere, tradizio historikoaren jarraitzaileek proiektuari emandako babesa jokoan zegoen. Dagoeneko ez dute hitz egiten zaharra desegiteaz, berregin eta egokitzeaz baizik. Bestalde, garbi dago parlamentariak ezin dutela Kodea aurrera atera Gortean artikulua banan-banan eztabaidatuz, eta Kodegintza



Batzorde Orokorra, ospe handiko legelariak osatutakoa, izendatzea (1843ko abuztuaren 19a) erabakiko dute.

Batzordeak Kode Zibilaz gain Zigor Kodea, Prozedura Zibileko Kodea eta beste zenbait lege berezi landu zituen; baita Napoleonen Kodean oinarritutako Kode Zibilen proiektu batzuk ere; horietan aipagarriena 1851ko Proiektua zen, ia bi mila artikulua zituena. Artikulu bakoitzaren nondik norakoak GARCÍA GOYENA legelari nafarrak, Kodegintza Batzorde Orokorren buru zenak, azaldu zituen 1852an argitaratutako liburu garrantzitsu batean: *Concordancias, motivos y comentarios del Código Civil Español*.

GARCÍA GOYENAREN Proiektuak kalitate teknikoa bazuen, zalantzarik gabe, eta auzi foralari zegokionean nolabaiteko erdibide edo konpromiso zientifikoa hartzen zuen Gaztelako Zuzenbidea eta Frantziako Kode Zibilaren artean. Hala ere, egoera politikoa zela eta, kale egin zuen egitasmo hark.

Berrogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera, eta 1851ko proiektuarekin gertatutakoa ikusita, nahiko garbi zegoen zenbait gai luze gabe arautzea beharrezkoa zela, eta, bestalde, hori posible izango zela, baldin eta ordura arte Kodea eratzea eragotzi zuten oztopoak saihesten baziren. Horren ondorioz, zenbait lege berezi, herrialde osoan aplikatzekoak izango zirenak, lantzeari ekin zioten. Aipa ditzagun horien artean 1861eko Hipoteka Legea, 1862ko Notariotza Legea, 1866 eta 1879ko Urei buruzkoak, 1870eko Ezkontza Zibileko eta Erregistro Zibileko Legeak. Guztiek ere izango zuten nolabait eragina etorkizuneko Kode Zibilean.

Legegintza aldatu zenean, ALONSO MARTÍNEZ Justiziako Ministroak lortu zuen Kode Zibilaren Oinarrien Legea Gorteek onartzea. Arau horren bitartez 1851ko Proiektuaren gainean beste proposamen bat egiteko agintzen zitzaion Gobernuari. ALONSO MARTÍNEZEN saio horrek kale egin bazuen ere, esan daiteke, Oinarrien Legearen bitartez bideratuta zegoela Kode Zibilaren auzia. Handik gutxira, 1880ko otsailaren 2an, Justiziako Ministro berriak, ÁLVAREZ BUGALLALEK, dekretu bat eman zuen, aipatutako Batzorde Kodegilean hauek sartuz: Katalunia, Aragoi, Balearrak, Galizia, eta baita Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako legelariak ere. Aditu hauen zeregina zen beren eskualdean irauaraztea komeni zen erakunde zibilei buruzko txosten bana idaztea. Proiektuak hau aurreikusten zuen: foru-lurralde horietan Kodearen aplikazioa osagarri modukoa izango zela.

1885eko urtarrilean Oinarrien Legearen bigarren proiektua aurkeztu zuen Francisco SILVELA ministroak, foruen auziari zegokionean eskuzabalago jokatuz: Gorteek onartuta, 1888ko maiatzaren 11ko Oinarrien Lege bihurtu zen azkenean. Lege honen agindu nagusiak Kodea egiteko prozedurari eta heterogeneotasun foralaren aurrean hartu beharreko neurriei zegozkien. Lehenengoari buruz hau agindu zuen: 1851ko proiektuak izan behar zuela oinarri. Bigarrenean erdiko bidea hartu eta agindu hau zuen: Kodea Eranskin batzuek osa zezatela, “mantentzea komeni den foru-erakundeak” bilduko zituztenak. Oinarri horiek aintzat harturik, Kodegintza Batzordeak testu bat prestatu zuen presaka. 1888ko urriaren 6an, berriro Ministro zen ALONSO MARTÍNEZek dekretua sinatu zuen Kodea *Gaceta de Madrid*-en argitara zedila aginduz. Zatika argitaratu zen, Gorteek Oinarrien Legean ezarritako adostasunak eztabaidatzen zituzten bitartean. Urte hartako abenduan Kode osoa argitaratu zen, baina erabilitako prozeduraren inguruko desadostasunak zirela eta, Kodea berriz ere argitaratu egin behar izan zen. Behin betiko testua 1889ko uztailaren 24ko errege-dekretuaz aldarrikatu zen.



Oraindik ere indarrean dagoen Espainiako Kode Zibilaren egitura honako hau da: atariko titulua eta lau liburu. Guztira 1976 artikulua ditu, xedapen iragankor batzuk eta beste gehigarri batzuk. Proiektuaren bi heren 1851ko proiektutik hartuta daude. Kode berria burgesia ertainarentzat egindako araua zela esan izan da; ikuspegi indibidualista du nagusi, eta borondatearen autonomiaren dogma zaharretan oinarritzen da.

Zer gertatu zen delako ‘auzi foralarekin’ Kodea onartu eta gero? Kodeak Estatuko zuzenbide zibil guztien arteko helburu bateratzailea alde batera uzten zuen itxuraz, baina praktikan Foru Zuzenbideari ematen zitzaion tratua ez zen berdintasunezkoa. Honako esamolde hauetan islatzen da Kode Zibilak zuzenbide zibil foralari buruz duen irudia: “Foruak bizirik dituzten probintzia eta lurraldeak oraingoz mantentzen dituzte”, “tokian tokiko araudi heterogeneoen multzoa”, “salbuespen zuzenbide ez indargabetua”, “foru edo ohitura bereziak eduki zituzten lurralde batzuetan mantentzen dena”. Oinarrizko iritzi honek ez zituen foruzaleak bultzatzen Alonso Martinez ministroaren Eranskinen sistemara atxikitzen. Izan ere, Aragoiko Zuzenbide Zibilari zegokiona bakarrik bihurtu zen lege 1926an.

Espainiako Kode Zibilaren testuingurua	
Proiektuak	Proiektua 1821 Proiektu pribatuak: 1825-1830 GOROSÁBEL / 1833-1834 CAMBRONERO Proiektua 1836 Proiektua 1851: GARCÍA GOYENA <i>Concordancias, motivos y comentarios del Código Civil Español</i> Legeria berezia: 1861 Hipoteca; 1862 Notariado; 1866-1979 Aguas; 1870 Registro civil; 1881 Enjuiciamiento Civil; 1882 Enjuiciamiento Criminal; 1885 Código de Comercio (1829koa derogatuz)
Kodea	1880 ALONSO MARTÍNEZ Oinarri Legea 1880 ÁLVAREZ BUGALLAL Foru lurraldeak sartzea (RD 1880.2.2) <i>Memorias</i> 1885 SILVELA Oinarri Legea 1889 ALONSO MARTÍNEZ Oinarri Legea – Kodea argitaratzeko Erret Dekretua 1889 Oinarrietara egokitzen den aztertzea – behin betiko argitalpena Kodearen eta Foru Zuzenbideen arteko harremana: KZ 12-13. artk.
Eranskinak	KZ 1976. art. (1) Zuzenbide komuna = Gaztelakoa (27. oinarria) = derogatua (2) Foru Zuzenbideak = Eranskinak (Oinarri Legearen 5-6. artk.) Onartu zen Eranskin bakarra: Aragoikoa 1925 (argitaratu)/1926 (indarrean)



Errepublikaren garaian Zuzenbidearen iturrien arloan erabateko aldaketa (iragankorra izanagatik ere) ekarri zuen 1931ko Konstituzioak: Autonomia Estatutua eman zitzaizen lurralde guztiei legegintzarako gaitasuna onartu zitzaizenean. Bertan onartu egiten zitzaizen eskualdeetako parlamentuei legeria zibilaren gaineko eskumenak, Estatuari egindako zenbait erreserba salbu (15.1 art.).

II Errepublikako Konstituzioa: parentesia eta aurrekaria

Artículo 15: *Corresponde al Estado español la legislación, y podrá corresponder a las regiones autónomas la ejecución, en la medida de su capacidad política, a juicio de las Cortes, sobre las siguientes materias: 1. Legislación penal, social, mercantil y procesal, y en cuanto a la legislación civil, la forma del matrimonio, la ordenación de los registros e hipotecas, las bases de las obligaciones contractuales y la regulación de los Estatutos, personal, real y formal, para coordinar la aplicación y resolver los conflictos entre las distintas legislaciones civiles de España.*

Euzkadi'ren Berjabetasun-Araudia (Estatutua)

Uritar legedi osoa, idatziriko edo oiturazko Legezarr legedipean edo uritar-zenbatzaren mende dauden gaiak batera. Araudi nagusiaren 15'gn. atala izango du mugatzat.

Legislación civil en general, incluso en las materias reguladas actualmente por el Derecho foral, escrito o consuetudinario, y el registro civil. Todo ello con las limitaciones establecidas en el número 1.º del artículo 15 de la Constitución.

Diktadura-garaian, helburu bateratzailea itzuliko zen beldurrez, legelari foralistek, 1946an Zaragozako Zuzenbide Zibileko Biltzar Nazionalean, Eranskinen sistema Konpilazioez ordezkatzeari lortu zuten. Kode Zibilari egin beharreko eranskinak ez eta eskualde bakoitzak argitara emango zituen konpilazio independenteak egingo ziren. Horiek horrela, Espainiako Gorteek onartu egin zituzten Bizkaia eta Arabako Zuzenbide Zibileko Konpilazioak (1959), eta baita Katalunia (1960), Balearrak (1961), Galizia (1963) eta Aragoikoak (1967) ere. Nafarroari zegokionez, lege berezi bidez onartu zuen bertako Konpilazioa Franco jeneralak berak 1973 urtean, probintziaren arma-zerbitzu bikaina eskertuz; lege hau Botere Zentralaren eta Nafarroaren artean hitzartutakoa balitz bezala aurkeztu zen. Nafarroako “Foru Berriak” (*Fuero Nuevo*) irtenbide juridiko berriak txertatu zituen, egileek Alemania edo Italiako herrialdeetako Kode Zibiletatik hartutakoak.

Foru-zuzenbidearen gaineko auzia, ordea, ez zen horrenbestez amaitu. 1974ko maiatzaren 31n onartu zen Kode Zibil berriaren Atariko Tituluan, Kode Zibilaren 13. artikulua honela zioen: Espainian aplikazio orokor eta zuzenekoa izango dute atariko titulu honen xedapenek, legeen ondoreak eta legen aplikaziorako erregela orokorrak zehazten dituzten neurrian, bai eta 1. liburuaren IV. tituluko xedapenek ere, azken titulu horretan ezkontzaren ondasun-erantzari buruzkoak direnak izan ezik. Gainerakoan, eta probintzietan nahiz lurraldeetan indarrean dauden zuzenbide bereziak edo foru-zuzenbideak oso-osorik errespetatuz, Kode Zibila ordezkotako zuzenbide moduan aplikatuko da, baldin eta ez badago probintzia nahiz lurralde horietako arau berezien arabera aplikatu beharreko ordezkotako zuzenbiderik.



Konpilazio-mugimendua eta testuingurua	
Legelarien Kongresua 1946	Zaragoza: Zuzenbide Zibilari buruzko Kongresu Nazionala <i>Aginduak 1944.08.03 (BOE 1944.08.07) eta 1946.09.11 (BOE 1946.09.19)</i>
Konpilazioak <i>Dekretua 1947.05.23 (BOE 1947.06.12)</i> <i>Agindua 1948.02.10 (BOE 1948.02.25)</i>	1959: Bizkaia/Araba lehenak: KZeko Eranskinen antzera eginak 1960: Katalunia 1961: Balear Irlak 1963: Galizia (Gaztelako zuzenbidea?) 1967: Aragoi (azkenak: sistema juridiko-zibil autonomoak) 1973: Nafarroa (trataera berezia: eremu zibil berrietara zabaltzen da)
Jaso Gabe	Baylioko Forua (Extremadurako Alburquerque, Jerez de los Caballeros eta inguruetakoa herrialdeetan; eta Ceutan).
KZeko Aitzin Titulua	1974: aldaketa 13. artikulua: “ <i>por ahora</i> ” esapiderearen ordean, “ <i>con pleno respeto a los derechos especiales o forales</i> ”

II. Espainiako ordenamendu zibila: ordenamendu zibil anitz

1. Konstituzioaren eragina (1978)

Ondoren 1978. urtean emandako Konstituzioak eragin nabarmena izan du Kode Zibilaren arau askotan. Eragin hori bi modutara hezurramitu da. Alde batetik, kontuan izan behar da arau-hierarkiaren printzipioaren arabera Konstituzioa dela arau gorena; gainerako arau guztiak haren mende daude, Kode Zibila barne. Gainera, Konstituzioaren Azken Xedapenak dio Konstituzioa zuzenean dela aplikagarri, eta Konstituzioaren arauak eraginkor izan daitezkeen ez dagoela lege bereziak aldarrikatu arte itxaron beharrik. Ondorioz, Kode Zibila nahiz beste ezein arau interpretatu eta aplikatzeko kontuan izan behar da Konstituzioak esaten duena, eta interpretazio horrek ezingo du Konstituzioaren, ez eta printzipio orokorren, aurkakoa izan.

Konstituzioa indarrean jarri zenean, Kode Zibilak ezkontzaz kanpoko umeei eskubide gutxiago aitortzen zizkien ezkontza barrukoei baino. Arau hori Konstituzioaren 14. artikulua kontrako zen (Espainiarrak berdina dira legearen aurrean; debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea *jaiotza*, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta) eta beraz, ordenamendutik kanpo geratu zen zuzenean indargabetze-neurri berezirik behar izan gabe, nahiz eta segituan aldarrikatu zen 11/1981 Legea, filiazioaren eraentza berriari buruzkoa.

Ondorioz, Kode Zibilaren arauak eta baita hura eratzen duten printzipioak ere Konstituzioaren argitan irakurri eta interpretatu behar dira.

Bestalde, 1978ko Konstituzioaren eragina nabari da, halaber, Kode Zibila egokitzeke egin diren hainbat erreforma-legetan. Erreforma-lege horien lehen tasun nagusia




familia gobernatzaren duten arauak –pertsonei nahiz ondareari dagozkienak- berritzea izan da; horrez gain, garrantzi handikoak izan dira ere gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoak, pertsonari buruzkoak eta oinordetzaren gainekoak.

Familiari dagokionez, jakin beharra dago Konstituzio aurreko legeek gizonzkoari ematen ziotela umeen eta emaztearen gaineko agintea, eta dibortzioa debekaturik zegoela. Egoera hori aldatzeko aldarrikatu ziren 11/1981 eta 30/1981 Legeak. Horien ostean etorri ziren 51/1982 eta 11/1990 Legeak, zeinen arabera emazteak ez zuen ezkontze hutsagatik bere nazionalitatea eta auzokotasun zibila galtzen senarrarena eskuratzearren; eta baita, 40/1999 Legea ere, umei amaren zein aitaren abizena jartzeko baimena ematen duena. Arestian aldarrikatu dira Kode Zibila erreformatu duten dibortzio-lege berria (15/2005 Legea) eta homosexualen arteko ezkontzaren legea (13/2005 Legea), eta aurki etorriko da ere egitatezko bikoteen Legea.

2. Zuzenbide zibil autonomikoak

Laburpen orokorra	
Lau Foru Lurralde (EK 1. XG)	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa
Aragoiko Koroa	Aragoi
	Katalunia
	Balear Irlak
	Valentzia <i>obiturazkoa</i>
Gaztelako Koroa <i>KZak bere zuzenbidea derogatu zuen, baina</i>	Galizia <i>kompilazioa</i>
	Asturias <i>obiturak</i>
	Baylio <i>obiturazkoa/Novísima Recopilación</i>
	Murtzia <i>obiturazkoa</i>





Zuzenbide zibil komuna: eginkizun nagusia	
Konpetentziaz	Eremu zabalagoa
Lurralde	Zabalera handiagoa
Funtzioz	Izaeraz ordeztaila

Zuzenbide zibil autonomikoak
Sistema zibil autonomoak: berezko printzipioak

Araukak
EK 149.1.8
<i>El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias: legislación civil, sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan. En todo caso, las reglas relativas a la aplicación y eficacia de las normas jurídicas, relaciones jurídico civiles relativas a las formas de matrimonio, ordenación de los registros e instrumentos públicos, bases de las obligaciones contractuales, normas para resolver los conflictos de leyes y determinación de las fuentes del Derecho, con respeto, en este último caso, a los normas de derecho foral o especial</i>
EHAE 10.5
<i>Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko gaiet dagozkienean konpetentzia eskusiboa du: 5. Euskal Herria osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta berezi -idatzia nabiz obizkoaren- kontserbazio. aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere.</i>
KZ 13
<i>1. Las disposiciones de este título preliminar, en cuanto determinan los efectos de las leyes y las reglas generales para su aplicación, así como las del título IV del libro I, con excepción de las normas de este último relativas al régimen económico matrimonial, tendrán aplicación general y directa en toda España. 2. En lo demás, y con pleno respeto a los derechos especiales o forales de las provincias o territorios en que están vigentes, regirá el Código civil como derecho supletorio, en defecto del que lo sea en cada una de aquéllas, según sus normas especiales</i>



Sistema zibil anitz		
Oinarria	EK 2: <i>la Constitución ... reconoce y garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones</i>	
	EK 143.1: <i>En el ejercicio del derecho a la autonomía reconocido en el artículo 2 de la Constitución, las provincias limítrofes con características históricas, culturales y económicas comunes, los territorios insulares y las provincias con entidad regional histórica podrán acceder a su autogobierno y constituirse en Comunidades Autónomas con arreglo a lo previsto en este Título y en los respectivos Estatutos</i>	
Eskuduntza gai zibiletan = izaera	Concurrente = hainbat legegile	<p>Estatua: <i>competencia exclusiva</i></p> <p>Beti: <i>las reglas relativas a la aplicación y eficacia de las normas jurídicas, relaciones jurídico civiles relativas a las formas de matrimonio, ordenación de los registros e instrumentos públicos, bases de las obligaciones contractuales, normas para resolver los conflictos de leyes</i></p> <p>Beti baina...: <i>determinación de las fuentes del Derecho, con respeto, en este último caso, a los normas de derecho foral o especial</i></p> <p>Zenbait Autonomia Erkidegoek: <i>sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades autónomas de los Derechos Civiles, forales o especiales, allí donde existan</i></p>
Autonomia Erkidegoak	Euskal Erkidegoa	Estatutua 10.3
	Katalunia	Estatutua 9.2
	Galizia	Estatutua 27.4
	Aragoi	Estatutua 35.4
	Valentzia	Estatutua 31.2
	Balear Irlak	Estatutua 10.2
	Nafarroa	Hobekuntza 48
	Asturias	Estatutua 16
	Extremadura	Estatutua 12
Ondorioak	Berezko sistema zibila	Konstituzioaren aginduz, batasun zibila baztertzen da: jada ez da <i>desideratum</i>
		Araudi desberdinak egotea ahalbidetzen da; beste kontu bat da arauak berdinak izatea
		Bakotzak bere araudia modu autonomoan garatzen du: konpilazioak eguneratu / erakundeak arautu / ohiturak bildu / Kodeketari ekin
	Muga	Lurraldea: <i>allí donde existan</i>
		Eskumena: <i>conservación, modificación y desarrollo</i>
Batera egongo dira estatuko / erkidegoko arauak	<p>Arau ordeztaila =</p> <p>Lehen: Kode Zibila</p> <p>Orain: sistemaren barruan auto-osatzea</p> <p>Azken iturria: <i>el derecho estatal será, en todo caso, supletorio del derecho de las Comunidades Autónomas (EK 149.3)</i></p> <p>Aplikazio-arauak:</p> <p>(1) Lurraldea: Autonomia Erkidegoa</p> <p>(2) Pertsona: auzotasun zibila (KZ 14)</p>	



EK 149.1.8: interpretazioa		
Lurraldea: <i>allí donde existan</i>		
Irizpidea	Gai zibila	Ez da autonomikoa, aurrez existitzea baizik
	Besteak	Autonomikoa: alor zibilean sartzen dira (hirigintza, nekazaritza, elkarteak)
Zehaztea	Idatziz zeuden konpilazioak: zalantzarik ez	
	Ohiturazko zuzenbidea: Extremadura, Valencia, Asturias, Gipuzkoa	
Zalantza	Lurraldea	Aplikazio tokia bakarrik (Aiarako edo Baylioko Foruak) Autonomia Erkidego osoa
	AKE 121/1992	“El amplio enunciado de esta última salvedad («Derechos civiles forales o especiales») permite entender que su remisión alcanza no sólo a aquellos Derechos civiles especiales que habían sido objeto de compilación al tiempo de la entrada en vigor de la Constitución, sino también a normas civiles de ámbito regional o local y de formación consuetudinaria preexistentes a la Constitución”
	AKE 88/1993 y 156/1993	“Pues no cabe aquí olvidar que la posible legislación autonómica en materia civil se ha admitido por la Constitución no en atención, como vimos, a una valoración general y abstracta de lo que pudieran demandar los intereses respectivos (art. 137 CE) de las Comunidades Autónomas, en cuanto tales, sino a fin de garantizar, más bien, determinados Derechos civiles forales o especiales vigentes en ciertos territorios. El término «allí donde existan» a que se refiere el art. 149.1.8 CE, al delimitar la competencia autonómica en la materia, ha de entenderse más por referencia al Derecho foral en su conjunto que a instituciones forales concretas”
	Edukia: <i>conservación, modificación y desarrollo</i>	
Kontserbatzea	AKEE 88/1993 eta 156/1993: “El concepto constitucional de «conservación ... de los derechos civiles, forales o especiales» permite, por lo que ahora importa, la <i>asunción o integración en el ordenamiento autonómico de las Compilaciones y otras normas derivadas de las fuentes propias de su ordenamiento</i> y puede hacer también viable, junto a ello, la <i>formalización legislativa de costumbres efectivamente vigentes en el propio ámbito territorial</i> ”	
Aldatzea	Konstituzio ondorengo ordenamenduan txertatzea, eguneratzea eta egokitzea	
Garatzea	Doktrina	Interpretazioa zabala: Estatuaren eskuduntza eksklusiboa jo arte
		Interpretazio tartekoa: aurrez zegoenarekin lotutakoa
		Interpretazioa hertsia: aurrez arautua zegoena bakarrik
	AKEE 88/1993 eta 156/1993	“Sin duda que la noción constitucional de «desarrollo» permite una ordenación legislativa de ámbitos hasta entonces no normados por aquel Derecho, pues lo contrario llevaría a la inadmisibile identificación de tal concepto con el más restringido de «modificación». El «desarrollo» de los Derechos civiles forales o especiales enuncia, pues, una competencia autonómica en la materia que no debe vincularse rígidamente al contenido actual



		de la Compilación u otras normas de su ordenamiento. Cabe, pues, que las Comunidades Autónomas dotadas de Derecho civil foral o especial regulen instituciones conexas con las ya reguladas en la Compilación dentro de una actualización o innovación de los contenidos de ésta según los principios informadores peculiares del Derecho foral. Lo que no significa, claro está, en consonancia con lo anteriormente expuesto, una competencia legislativa civil <i>relatione materiae</i> , dejada a la disponibilidad de las Comunidades Autónomas, que pugnaría con lo dispuesto en el artículo 149.1.8º CE, por lo mismo que no podría reconocer su fundamento en la singularidad civil que la Constitución ha querido, por vía competencial, garantizar”.
--	--	---

Araudia			
Komuna	Konstituzioa 149.1.8		
Autonomikoa	Euskal Erkidegoa	Autonomia Estatutua 10.5	<i>Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco</i>
		Foru zuzenbide zibilari buruzko Legeak	<i>Ley 6/1988, de 18 de marzo, de modificación parcial del Derecho Civil Foral (EHAA apirilak 12)</i> <i>Ley 3/1992, de 1 de julio, de Derecho Civil Foral Vasco (EHAA abuztuak 7)</i> <i>Ley 3/1999, de 26 de noviembre, de modificación de la Ley del Derecho Civil del País Vasco, en lo relativo al Fuero Civil de Gipuzkoa (EHAA abenduak 30)</i>

III. Zuzenbide zibilaren edukia

1. Zuzenbide pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketa

Publicum ius est quod ad statum rei romanae spectat, privatum quod ad singulorum utilitatem

ULPIANO: D. 1,1,12

Gaur egun Zuzenbide publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketari gauza normala irizten badiogu ere, bereizketa hori nahiko berria da berez. XII. mendean agertzen da lehen aldiz, Domat jurista frantsesaren idatzietan.

Bien arteko bereizketa zertan datzan azaltzea ez da erraza. Eztabaida ugari sortu da auzi horren inguruan, legeak ez baitu esaten zertan bereizten diren Zuzenbide publikoa eta pribatua, eta doktrinak, berriz, irizpide bat baino gehiago erabili izan du, denak ere nola-halakoak, ez baitira auzia behin betirako ebazteko gai.

Irizpide nagusiak zein diren azalduko dugu jarraian, baina kontuan izan bedi guztiek ere bereizketa garbi azaltzeko arazoak dituztela:

(1) Zuzenbide publikoan arau inperatiboak dira nagusi, eta Zuzenbide pribatuan, berriz, xedapenezkoak. Bereizketa hori, ordea, ez da guztiz egiazkoa, Zuzenbide pribatuan ezinbestean bete beharreko arau ugari baitago (etxebizitzetxe buruzko errentamendua, senipartea, jarduteko gaitasuna, ...).



(2) Zuzenbide pribatuak pertsona pribatuen arteko harreman juridikoak arautzen ditu. Hori ez da beti horrela izaten, ordea. Egun enpresa publiko asko dago trafiko juridiko pribatuan aritzen dena eta Zuzenbide pribatuko araukin funtzionatzen duena; eta Administrazio bera partikular moduan ere aritzen da askotan (esaterako unibertsitateak liburutegirako liburuak erostea, paraninfoa erabiltzeko ahalmena errentan ematea, ...).

(3) Zuzenbide publikoak interes orokorra zaintzen du, eta pribatuak, aldiz, pribatua edo partikularra. Ikuspegi hori nahiko herren geratzen da; izan ere, Zuzenbide pribatuko arauak ez dute interes partikularra bakarrik asetzen, orobat Zuzenbidearen arauak, baita Zuzenbide pribatukoak ere, interes orokorra baitute abiapuntu eta azken xede (EK 1.1 artikulua). Horrela, kontratuak egiteko askatasuna aitortzea, ekonomia guztion onuran garatzeko modua da; alderantziz, zuzenbide publikoak ere interes partikularrak sustatzen ditu esaterako ikasteko beka emanaz.

(4) Zuzenbide pribatuak arautzen dituen egoera eta harreman juridikoetan berdintasun mailan daude alderdiak; Zuzenbide publikoan, aitzitik, alderdietako batek, Administrazioak hain zuzen, *imperium*-arekin jokatzeko du. Hori ere ez da egia biribila; izan ere, trafiko juridiko pribatuan aritzen diren alderdiak ez daude elkarren arteko berdintasun-egoeran; pentsatu, esate baterako, masan egiten diren kontsumo munduko kontratuetan.

Bukatzeko, hau esan daiteke: aipatutako irizpideak banan-banan hartuta bereizketa oinarritzko hori azaltzeko gauza ez badira ere, guztiak batera hartuz gero, nahiko argi agertzen dela Zuzenbide pribatuaren eta publikoaren arteko desberdintasuna zertan datzan.

No existen dos sistemas de Derecho, ni un Derecho con principios o caracteres exclusivos o esencialmente opuestos a los de otro Derecho... (La función que realiza el Derecho) se expresa en dos principios: el de personalidad y el de la comunidad, ambos dirigidos a un mismo fin común (realización social de la Justicia) y en constante y necesaria colaboración; los dos se reflejan en cada norma, aunque uno de ellos quede en segundo término respecto al otro

Federico de CASTRO

Arau bat eremu batean edo bestean txertatzeak badu garrantzia juridikoa, izan ere, batetik, horren arabera erabakiko baita zein jurisdikziok duen eskumena arazoa ebazteko orduan; eta, bestetik, erlazio juridikoari aplikatu beharreko arauak ere zehaztuko dira. Esate baterako:

(1) Babes ofizialeko etxebizitza Administrazioak jarria dion gehienezko prezioa gaintuz saltzen bada, santzio administratiboz gain santzio zibila (kontratua zati horretan deuseztea) ere badagoen erabaki behar da (aldekoak AGEE 1991/06/24 edo 2009/05/14; kontrakoak AGEE 1993/06/04, 1994/02/21, 1996/03/15, 2002/12/19 edo 2007/12/12).

(2) Administrazioan emandako 1989/12/12 Ministerio Aginduaren 4. artikuluan jasotako arauak (EBO 1989/12/19) eragina Administrazioan bakarrik zuzen, izan ere Kode Zibileko 1170. artikulua ez baitzeturren bat. Indarrean urte luzetan egon ondoren, gero 2010/06/14 Ministerio Aginduak derogatu zuen (EBO 2010/06/18).



2. Zuzenbide zibila, zuzenbide pribatu orokor

El hombre, antes que comerciante, trabajador, agricultor, es hombre, sujeto de derecho (persona), titular de un patrimonio y miembro de una familia. Estas condiciones jurídicas (...) actúan en la órbita del Derecho Civil

JORDANO BAREA

Zuzenbide zibila zuzenbide pribatu orokorra dela esan ohi da. Horrela definitzen da askotan gure irakasgaia. Zer esan nahi du, bada, orokor izateak?

Lehenik eta behin, esan beharra dago zuzenbide zibilak ez duela zuzenbide pribatu osoa barne hartzen. Zuzenbide zibilaz gain, zuzenbide pribatua hauek osatzen dute: merkataritza zuzenbideak, lan zuzenbideak eta abarrek. Zuzenbide zibila, beraz, zuzenbide pribatuaren zati bat besterik ez da, baina ez nola-halako zatia, zati kualifikatua baizik. Dakigunez, bilakaera historikoaren ondorioz zuzenbide zibilaren jatorriko enborretik hainbat adar sortu izan da, eta gerora zuzenbide pribatua osatuko zuten. Adar berezi horiek hainbat gauza zor diote jatorrizko zuzenbide zibilari: printzipio erkide edo komunak eta interpretazio-arau nagusi batzuk, nagusiki. Hori dela eta, Kode Zibilak dio (4.3. artikuluan) zuzenbide zibila beste horien ordezkotzat izango dela; beste horietan hutsunerik badago, zuzenbide zibileko arauak aplikatu beharko direla, alegia. Horregatik esaten da, hain zuzen ere, zuzenbide zibila orokorra dela.


Bestalde, kontuan izan behar da, halaber, zuzenbide zibila guztioi aplikatzen zaigula pertsona fisiko garen heinean, lan zuzenbidea edo merkataritza zuzenbidea, aldiz, langileei eta merkatariei baino ez zaie aplikatzen. Ikuspegi horretatik ere, zuzenbide zibila orokorragoa da aipatutako beste biak baino.

Zuzenbidea: beharra			
Gizakia	+ Gizartea	= Pertsona	Naturala
Ondarea	Baliabideak banatzea	<i>bizirik irauteko</i>	
Familia	Beste norbaitekin	<i>ugaltzeko</i>	
Zuzenbidea		= antolakuntza	Eskubidea
Eskubidea Gizakiaren subiranotasuna	Titularitatea baliatzea - defentsa		Subjektua pertsona
Pertsona vs. Gauzak	Animaliak	Higigarriak	Higiezinak



Zuzenbidea			
Ikuspegi <i>objektiboa</i> : ordenamendu juridikoa		Ikuspegi <i>subjektiboa</i> : eskubidea	
ULPIANO (Digesto 1.1.1.2): <i>studii duae sunt positiones: publicum et privatum, publicum ius est quod status rei romanae expectat, privatum quod ad singularum utilitatem</i> (ikasketan bi eremu daude: publikoa eta pribatua, zuzenbide publikoa da errepublikari dagokiona, pribatua partikularren erabilgarritasunari dagokiona)			
BEREIZI Zuzenbide	Publikoa <i>Interes orokorra</i>		Pribatua <i>Interes partikularra</i>
	Botere publikoa	<i>Subjektuak</i>	Partikularrak
	Zerbitzu publikoa	<i>Babestutako objektua</i>	Interes pribatuak
	Nagusia	<i>Erlazioa</i>	Berdintasuna
	Derrigorrezkoa	<i>Arana</i>	Borondatezkoa
ADARRAK	Konstituzionala Prozesala Penala Administratiboa Fiskala Laborala (<i>Gizarte Segurantzza</i>) Nazioarte publikoa		Zibila Merkataritzakoa Laborala (<i>langileen estatutua, sindikaritzza</i>) Nazioarte pribatua
Zuzenbide ez-positiboa (ordenamendu juridikotik kanpo)			
Zuzenbide Erromatarra Zuzenbidearen Historia Eliza Zuzenbidea Zuzenbidearen Filosofia			

Hiritarrek elkarren artean adiskidetasunez jokatuko balute, justiziaren (agintearen) beharrik ez lukete izango
ARISTOTELES





El Derecho forma parte del patrimonio espiritual de cada país; es ordenamiento de una determinada comunidad humana, peculiar y distinta de otras, compuesta, no sólo por sus miembros actuales, sino por el recuerdo y el legado de quienes lo fueron antes y por su vocación hacia los futuros. El Derecho de un pueblo es algo más que la letra muerta de un articulado: más que una reglamentación adventicia y externa: constituye uno de sus bienes espirituales, como la lengua, el arte, la literatura o la ciencia; forma parte de su historia y de su cultura, y se presenta como un organismo viviente y en plena evolución, relacionado con el modo de vida del pueblo y su manera de ser

LACRUZ BERDEJO

3. Egungo ezaugarriak

Egungo egoerari begira doktrinaren gehiengoak uste du XIX. mendetik jasotako Zuzenbide Zibilaren ereduak krisian dagoela. Krisi horren adierazpenak askotarikoak badira ere, nagusiak honako hauek lirateke: deskodetzea, edukiak galtzea eta publikotzea.

Deskodetzeari dagokionez, esan beharra dago XIX. mendean gero Kode Zibilak aurreikusten ez zituen egoera berriei erantzuteko lege berezi ugari aldarrikatu dela. Arau horiek Kode Zibilaren barrura ekarri beharrean, lege “solte” moduan kaleratu izan dira, Kode Zibiletik kanpo, beraz, eta haren antolamendura egokitu gabe. Lege berezi horiek ugaritu egin diren heinean, Kode Zibilaren balioa eta nagusitasuna murriztu egin da.

Kodeek balioa galtzeko beste arrazoi bat gizartearen aldaketa izan da. Kodeek estatu liberal-burgesaren beharrei erantzuten dioten neurrian, eta gizartea XIX. mendeko ideario hartatik urrundu ahala, Kodearen erantzunen balioa gero eta txikiagoa da. Bestalde, Kodearen arauak ezin diote teknologia berrien bilakaerak eta egitura ekonomikoen aldaketak sortutako arazoei erantzunik eman. Horrek guztiak prozesu ekonomikoaren erdigunetik at uzten du Kodea. Bigarren mailako trafikoko ekonomikoaren arazoei besterik ez die erantzuten Kodeak: etxeko arazoei. Gehien ukitzen diren arauak jabetza pribatuari dagozkionak dira, 1978ko Konstituzioaz geroztik jabetza ez baita eskubide absolututzat kontsideratzen, funtzio soziala betetzen duen eskubide mugatu gisa baizik. Aurrekoarekin lotuta, autonomia pribatuaren kontzeptua ere aldatu egin da: masan egiten diren kontratuetan, esate baterako, estatuak parte hartzen du alderdi ahulena babestearren.

Aipatutako oinarri ideologiko eta ekonomiko berriei erantzuteko arau multzo berezituak sortu dira. Kodetik at ez ezik, Zuzenbide Zibiletik kanpo ere garatu dira, eta Kodeari edukia kentzen diote. Hurrenez hurren, Merkataritza Zuzenbidea sortu zen lehenik, Lan Zuzenbidea haren ondotik, Nekazaritzako Zuzenbidea berrikitzen, eta haren atzetik Hirigintzako Zuzenbidea, industriaren trafikoa arautzen duen zuzenbidea, eta beste zenbait.

Zuzenbide Zibilaren publikotze-prozesua aipatuko dugu azkenik. Izen hori eman dio doktrinak eskuarki eremu pribatukoak izan diren arauetan Zuzenbide Publikoa oldartzeari. Urak, meategiak, mendiak, hirigintza..., garai batean Zuzenbide Zibilak araututako gaiak, Administrazio Zuzenbideak arautzen ditu orain. Publikotze-prozesu horren arrazoiak lehen aipatu ditugunak berak dira: batik bat, ongizate-estatuaren sorrera eta horri lotutako autonomia pribatuaren eremua murriztea.



4. Zuzenbide Zibila osatzen duten erakunde nagusiak

Zertaz arduratzen da Zuzenbide Zibila? Zuzenbide Zibilaren ardatzak bi dira: pertsona eta ondarea.

Lehenik eta behin, pertsonaren nortasuna zaintzen du Zuzenbide Zibilak. Alegia, nortasunaren eskubideez baliatzeko aukera ematen dio pertsona fisikoari: pertsonaren bizia, osotasun fisikoa, genoma, intimitatea, ohorea, irudia, eta horrelakoak babesten ditu. Oinarrizko eskubide horiek, ordea, ez daude Kodean jasota, Konstituzioan eta lege berezietan baizik; izan ere, Kodea indarrean sartu zen garaian ez zegoen halako eskubideen gaineko kontzientziarik.

Pertsonaren eremuari gagozkiola, Kode Zibilak gaitasun juridikoari buruzko arauak ezartzen ditu: jarduteko gaitasuna, gaitasun-gabetzea, gaitasun-gabearen ordezkioak, babes-erakundeak eta abar.

Pertsonak besteekiko dituen harreman juridikoak direla eta hainbat eremu arautzen ditu Zuzenbide Zibilak. Hurbilenekotik hasita, familiako eremuari buruzkoak arautzen ditu: bikotearen arteko harremanak (ezkontza, ezkondu gabeko bikote egonkorrak, dibortzioa, eta abar), eta guraso eta umeen artekoak (filiazioa eta guraso boterea). Familiaren eremuari dagokionez, kontuan izan behar dira ere ezkondu gabeko bikoteen gaineko legeak (Euskal Legebiltzarreko 2/2003 Legea) eta giza ugaltze artifizialari buruzko legea (Estatuko 35/1988 Legea).

Familiari lotuta, baina ondare-kutsu handiagoaz, pertsona ardatz gisa duen bigarren eremuan sar daitezke ezkontideen arteko ondare-harremanak eta oinordetza-arauak.

Familiarteko mugetatik landa, beste pertsonetikiko harremanei dagokienez, beste bi eremu irekitzen dira: ondarea eta kontratuzko harremanak. Pertsonaren ondarearen barruan aztertzen dira ere eskubide errealak (jabe izatea eta gainerako eskubide erreal mugatuak).


Amaitzeko, pertsonen arteko harremanen moldea ezartzen duen Kode Zibilaren atal bat aipatu behar da: Kontratu edo Obligazio Zuzenbidea, hain zuzen.

Abarca, en efecto, hoy como ayer, el Derecho Civil, las facetas del ordenamiento jurídico privado más próximas al hombre: las que calan más incesantemente en su intimidad y en su existencia cotidiana

LACRUZ BERDEJO



Zuzenbide zibila			
Ezaugarriak	Pribatua		
	Orokorra/oinarria (<i>versus</i> berezia: partikularren harreman bereziak)		
	Komuna	Materiala	2 eta 50 CCo / 7.2 LG Trib. / 4.3 LG Presup.
		<i>Kontzeptuak</i>	Ondorioa: ordeztailea (KZ 4.3 eta 13)
	Lurraldea	Sistema zibil kodetua / autonomikoa (lurraldean komuna)	
		Eskuduntzaren arabera: EK 149.3 CE eta FZZL 3	
Edukia	Pertsona Zuzenbidea		
	Familia Zuzenbidea		
	Ondare Zuzenbidea (jabetza/obligazioak)		
	Oinordetza Zuzenbidea		
Egitura	Kode Zibila		
	Ikasketen egitura		



En efecto, todos nacemos y morimos, y ambos son fenómenos que contempla el Derecho Civil; todos tenemos padres o tutores, y la relación con ellos está regulada por el Derecho Civil; todos tenemos nombre y apellidos, nacionalidad y domicilio; pasamos de la minoría a la mayoría de edad; mucha gente se casa o vive en pareja, tiene hijos, se divorcia; todo el mundo es propietario de algo a lo largo de su vida y/o utiliza en algún momento bienes ajenos; casi todo el mundo celebra algún contrato (compra, vende, alquila, pide un préstamo, constituye una hipoteca, regala ...); todos somos consumidores; mucha gente hace testamento para disponer de sus pocos o muchos bienes o, si no lo hace, el Derecho Civil determina a quién tienen que ir a parar esos bienes después de su muerte... Podría decirse que es posible vivir al margen del Derecho Penal, Laboral, Procesal, Mercantil, Internacional o Eclesiástico, pero que es imposible vivir al margen del Derecho Civil: éste se nos aplica desde antes del nacimiento (art. 29 CC) hasta después de la muerte.

AMORÓS GUARDIOLA

